ASTEKARIA | 2022ko irailaren 16an | XXVI. urtea | USURBIL | 919. zenbakia | www.noaua.eus

TOKIKOM

noaua

HERRIA HERRITIK, BESTE 25 BAIETZ!

Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitatea: “Herritik abiatutako alternatiba bat osatu nahi dugu”

Oroimenerako gune bat inauguratuko dute igandean Irubiden

Ur-jolasak eta globo-gerra, Santueneko jaietako lehen ekitaldiak

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

Matrikula epea zabalik

(aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43- 943 36 66 08)

•HEZKUNTZA OROKORRA

(Oinarrizko kultur formakuntza: Euskara, Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, Idazketa. Kalkuloan hastapena eta hobekuntza. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...)

- **DBH-ko titulua** (4 hilabeteko ikastaroak)
  - EUSKARA TAILERRA (MAILA 0, 1 ETA 2)
  - GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT
  - IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAR

ARGIBIDEAK: 943 36 66 08

Ondo pasa Santueneko jaietan!

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!



Santuenea,
Telf: 943 36 50 31

SAGARDOTEGIA

AÑORGA TXIKI S.L

KRISTALDEGIA

Beirazko itxitura **sistema berria**!!!
perfil bertikalik gabe!!
zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!
aukera zabalak!

seeglass ONE

·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak·dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Albisteak iruditan

Portaera “zikinak”

Kale Nagusiko pasabidean eginiko argazkia, herritar batek bidalia.

“San Esteban polita omen, bai, baina hondakinez inguratuta dago”

Opil Goxo okindegiaren kanpoko mahaiak maiz zikinkeriaz beteta egoten direla salatu du herritar batek. Okindegia itxita dagoen orduetan mahaiak kanpoan uzten dituzte jabeek jendeak erabili ahal izateko, baina jan ondoren zikinkeria bertan uzten dutelako kexu agertu da herritarra. “Horrela jarraitzen badute, beste lekuren bat bilatu beharko dute”, jakinarazi du herritarrak NOAUA!ra igorritako ohar baten bidez.

“Okindegiko nagusiek badakite eta ikusi izan ditut gazte batzuei erabili ahal dutela esaten, baina mesedez dena zegoen bezala uzteko eskatzen”, azpimarratu du herritarrak. Opil Goxokoak dena garbitzeaz arduratzen dira okindegia irekitzean, baina hori norbanakoek egin beharreko lana dela uste du herritarrak. “Ez bota harririk zuen teilatuari”.

San Esteban ere, “hondakinez inguratua”

Hala idatzi digu beste herritar batek, Urdaiagan ikusitakoaz kezkaturik. “Elizaren eskuin aldeko malkarra, urteetan hor bota diren hondakinez josita dago. Horietako asko edo gehienak, elizatik botatakoak”, dio beste irakurle honek NOAUAra bidalitako idatzian. “San Esteban polita omen, bai, baina hondakinez inguratuta dago”.

Laburrean

1945ean jaiotakoen bazkaria, urriaren 2an

Urriaren 2an bilduko dira Artzabal jatetxean. Bertara joan nahi duenak bi telefono zenbakiotako batera deitu eta izena eman dezala irailaren 24a baino lehen: 645 711 033/ 670 574 910. “Urriaren 2an ikusi eta ondo pasako dugulakoan, agur bat”.

1952an jaiotakoen bazkaria, urriaren 22an

Lukainkategi jatetxean ospatuko dute urriaren 22an, 1952an jaiotakoen topaketa, bazkari eder baten bueltan. Izena emateko epea hilabete horretara arte, urriaren 15era bitarte zabalik izango dute. Apuntatzeko deitu 620 516 715 telefono zenbakira (Javier).

Sexuen Aholkularitza Gunearen erakusketa

‘Sexuen ibilbidean, Usurbilgo Sexuen Aholkularitza Gunea bidaidea. Pentsatu, izan eta bixi bizi’ izeneko erakusketa ikusgai izango da irailaren 22ra arte Sutegin. “Erakusketan, gure lan egiteko modua, landu daitezkeen gaiak eta gogoeta interesgarriak agertuko zaizkigu”.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako: erredakzioa@noaua.eus

Usurbilgo Udala
Euskal presoak
Euskal Herrira!

Gipuzkoako Foru Aldundia

Ainhoa Azpirotz

Klik eta kito

Oporretan Suedian ibili den lagun batekin egon naiz duela gutxi eta harrituta geratu naiz esan didanarekin: "15 egun pasa ditut Suedian bidaiatzen eta ez dut ez ingelesik ez suedierarik behar izan eta ezta inorekin hitz egiteko premiarik ere". Ez nuen ondo ulertu zer esan nahi zidan eta hobeto esplikatu zidan.

Lagunak ez daki ingelesik, eta suediera gutxiago, eta halere lasai ederrean ibili dela zioen. Hasteko, hegazkin txartela Internetez erosi zuen, etxetik mugitu gabe, etxeko ordenagailutik. Irten bezperan modu berean egin zuen checking-a. Hegazkineko bidaiaren ondoren Suedian lur hartu orduko prest zeukan google-en itzultzailea. Halere, aireportuko seinaleak itzultzaile gabe ere erraz ulertzen omen ditu bidaiatzen ohituta dagoen edonork, hitzen ondoan egoten diren irudi eta marrazkitxoak lagun.

Behin hegazkineko bidaia bukatuta, lagunak trenez eta autobusez bidaiatzeko plana zuen eta txartelak erosteko makina bat topatu zuen aireportuan bertan. Garraio publiko guztiak erabiltzeko txartel orokorra erosi zuen makinan, digitala, telefono mugikorrean eraman ahal izateko. Ez zuen inorekin hitz egin beharrik izan, makinan adierazitako pauso guztiak jarraitu, kreditu txartelarekin ordaindu eta kito.

"Google maps-i eta garraio publikoko txartelaren aplikazioari esker, erraza egin zaio bidaiak antolatzea".

AINHOA AZPIROTZ

"Bidaiatzeko (edo bizitzeko) moduak aldatzen ari dira; nahikoa da bateria eta kobertura dituen telefono mugikorra edukitzea"

Trenean txartela erakutsi behar izan zion baliozkotzera pasa zen langileari, QR kodea. Klik bat eta nahikoa. Autobusean ibili zenetan ere ez zuen gidariengana hurbildu beharrik izan; autobus barruetan, erdialdean egoten diren makinetan klik egin eta nahikoa.

Trenetako eta autobusetako giro isilera ohitzea kosta egin omen zitzaion; denak isil-isilik, asko belarrietan haririk gabeko aurikularrak jantzita, beste asko mugikorrari begira… Elizara sartzea bezala omen zen, sartu eta isiltasuna. Norbaiti zerbait galdetzeak ere estuasuna ematen omen zion. Gainera, pantailetan oso ongi adierazita zegoenez ibilbidearen nondik-norakoa, une bakoitzean non zeuden eta hurrengo geltokia zein zen, ez zuen informazio gehiagorik behar.

Google maps-i eta garraio publikoko txartelaren aplikazioari esker, erraza egin zaio bidaiak antolatzea. Stockholm-etik Linköping-era joan nahi zuela jarri eta lauzpabost aukera ematen zizkioten; azkarrena, laburrera, erosoena… Aurrena autobus hau, gero tren hori, segidan 8 minutura beste tren bat eta ordu eta laurdenera helmuga. Bigarren trena galduz gero, hurrengoa ordu erdira zegoela adierazten zuen aplikazioak. Ordutegiak, loturak, atzerapenak… dena mugikorrean, eskuetan.

Gauza bera bisitatu beharreko lekuekin. Lehen, leku batera iritsi orduko informazio turistikoaren bulegoa bilatzen hasten omen zen, eta hango langileekin hitz egin ondoren, eskuetan mapak eta liburuxkak zituela ateratzen omen zen. Orain, Googlek dena esaten dio, non zer dagoen, zer ordutegi duen, nola iritsi eta abar. Informazio eguneratua eta zehatza.

Lo lekuetako erretserbak aurretik egina zeuzkan, Internetez. E-posta bidez kodeak bidaliak zizkioten eta iritsitakoan ate ondoko kaxan kodea jarri eta gelako atera irekitzen zuen, harreratik pasa beharrik gabe.

Supermerkatuetan ez zuen inori ezer eskatu beharrik, hemen bezala, pasilloetan barna ibili, nahi zuena karrora sartu eta kutxazainik gabeko kutxak zeuden ordaintzeko. Makina ondo maneiatzen jakinez gero, aurrera.

Hori dena kontatuta, berriz azpimarratu dit bidaiatzeko ez dela hizkuntzarik behar. Jendarteko harremanak gutxitu egin dira edo besteekin erlazionatzeko beharrak desagertzen ari dira. Bidaiatzeko (edo bizitzeko) moduak aldatzen ari dira. Nahikoa da bateria eta kobertura dituen telefono mugikorra edukitzea. Konturatuta edo konturatu gabe, honaino iritsi gara.

Usurbilgo EBK

Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitatea, helburuak zehazten

Energia, guztion bizitza zeharkatzen duen gaia izanik, edozein pertsona edota komunitatearen ongizaterako ezinbesteko elementu gisa aitortu beharra dago. Gai hau gureganatu eta gaur egun, energiarekiko dugun lotura aztertzea beharrezkoa izango da horretarako, gizartea ahaldundu eta parte-hartze aktiboaren bitartez gure ingurunean eragin dezagun.

Herritik abiatutako trantsizio energetikoaren beharra

Gaur egun, EHan kontsumitzen dugun energiaren %10a ekoizten da bertan. Zoritxarrez, kanpoarekiko menpekotasun energetiko eta ekonomikoa elikatuz jarraitzen dugu, kontsumitzen dugun energiaren zati handiena energia fosiletan oinarritzen delarik. Eta beraz, beharrezkotzat jotzen da, energiarekiko dugun arazoa ulertzea, testuinguru honetan kokatu eta benetan sustatu nahi dugun trantsizio edo aldaketaren ardatza izateko.

Bide honetan, beharrezko informazioa bildu eta hausnarketan oinarritu nahi du Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitateak (EBK). Eragile aktibo izateko bidean, elkarren arteko kohesioa eta ahalduntzea indartzeko asmoarekin. Eta erabakiak herritarron eskuetan egon daitezen, talde anitz eta zabala osatuaz, egoera eta ezagutzak partekatu eta beharrezko jakintzak biltzeko helburuarekin.

Egungo gizarte indibidualista eta kontsumistaren aurrean, herritik abiatutako alternatiba bat osatu nahi da, ezkortasun eta haserrea, modu eraikitzaile batean gainditzeko asmoz. Eta horretarako, Usurbilgo herritar, eragile, elkarte, tokiko enpresa eta Udalaren arteko lankidetza bilatuko da.

Zergatik elkartu gara hemen?

Irailaren 21ean asteazkena, bilera irekia Potxoenean, arratsaldeko 18:00etan.

XEDE NAGUSIA

"Egungo gizarte indibidualista eta kontsumistaren aurrean, herritik abiatutako alternatiba bat osatu nahi da, ezkortasun eta haserrea modu eraikitzaile batean gainditzeko asmoz"

Jasangarritasuna eta kanpoarekiko dependentzia murriztea

EBK-k, herri egitasmo zabal baten forman, energia subiranotasuna eta jasangarritasuna lantzeko tresna izan nahi du. Energia krisiaren aurrean, enpresa handien abusuekiko menpekotasuna hautsi nahi du, herrian ditugun baliabideak identifikatuz eta kontzientziazio dinamika bat elikatuz. Horretarako, ezinbestekotzat jotzen du, ditugun aukerak ezagutu eta bide horretan, teknologia berriztagarrien eta jasangarritasunaren arteko oreka mantentzea.

Beraz, gure behar energetikoak aztertu eta kontsumoak murrizteko bideak uztartu nahi ditu, pobrezia energetikoari aurre egiteko bideak uztartu eta herri garbiago bat eraikitzen laguntzearekin batera.

Beharren arabera, aldaketarako eta energia autosufizientziarako gure baliabide eta proiektu propioak garatu nahi dira. Ekonomia sozial eta eraldatzailean oinarritutako, herritik abiatutako eta gure neurrira egindako proiektu parte hartzaileak sustatuz. Beti ere, ingurunearen zaintza, herritarron ongizatea eta irabazi asmorik gabeko tokiko garapen ekonomiko garden bat hauspotzeko helburuarekin.

Hausnarketa eta parte hartze iraunkorrerako taldea eratzea

Bide honetan, hurrengo urteetan zehar, jarduera iraunkor bat garatuko duen komunitate bizi eta aktibo bat osatu nahi da. Horretarako, egitasmo herritar eta zabal bat abiatu nahi delarik, modu integralean, energia trantsizioaren erronkari aurre egiteko helburuarekin.

Energiak gure elikaduran, mugikortasun ereduan, etxebizitzetako behar termiko eta elektrikoetan, lanetan, jarduera ekonomikoetan, ohituretan, familia eta harremanetan... duen harremana aztertu eta honen eragin latzenak lausotzeko tresnak garatuko dira. Horretarako, herri mailako saretzea eta kontzientziazioa uztartuko da, pertsonak ahaldunduz eta ikuspegi zabal batez, erantzukizun eta erabakitze kolektiboa oinarri duen talde eraginkor eta konfiantzazko bat antolatuaz.

Tokiko garapenerako bidea

Ingurune hurbilaren garapenerako tresna izango da EBK, eta ez da inolaz baztertzailea izango, arrazoi ekonomiko zein sozialei dagokienez. Komunitatearen bizi baldintzak hobetzea bilatuko du, bazkideen beharretara egokitutako zerbitzu eta aholkularitza garatuz eta inguruneko beste eragileekiko, erreferentzia gune bilakatuz.

Honen baitan, arrakala sozial eta ekonomiko oro gainditzeko helburua izango du, eta zehazki, pobrezia energetikoa pairatzen dutenen babesa bilatuko du.

Egungo bizi baldintzak hobetzeko bidean, komunitateko partaideei, onura ekonomiko zuzenak eskaintzen saiatuko da: proiektuen bidez energia berde eta sozialago bat bideratuz, kontsumo ohiturak aldatzeko baliabideak emanaz, edota orotariko aholkularitza eta gertuko tratu eta eskuragarritasuna bermatuz.

Tokiko garapen ekonomiko orokorrari dagokionez ostera, EBKren balioekin bat datozen proiektuetan berrinbertituko diren aurrezpenak eta lanpostuak sortzeko lan egingo du. Horretarako, bere balio eta xede sozialak partekatzen dituzten eta ahal den neurrian, bertakoak diren enpresak lehenetsiko ditu bere jarduerak garatzeko. Baita, euren aldeko EBK-an parte hartzea bilatuz eta inter-kooperaziorako bideak indartuz ere.

Kirolari eta igerilarientzako aukera ugari Oiardo kiroldegian

Oiardo Kiroldegia

Helduei dagokienean, areto jardueren artean, spinning, pilates, 3. adina, mantenu gimnasia, zunba, hit, hipopilates, Usurbil barrena (Kalean), konbinatua (spinning A2, tonifikazioa), yoga, jarduera fisiko egokitua, eskalada eta Nordic Walking eskainiko dute.

Igerilekuko eskaintza

Igerilekuan ere hainbat ikastaro antolatu dituzte haurdunentzat (ur jarduerak eta pilates), aquagym, igeriketa saioak (hobekuntza, hastapena eta errendimendua).

Haur eta gazteentzat zumba gazte, spinning, eskalada eta konbinatua (igeriketa eta spinning) antolatu dituzte. Igerilekuan HH, LH, DBH nahiz 14-18 urte artekoei zuzenduriko ikastaroak.

Izen-ematea, online

Izena irailaren 25era arte online bideratu ahalko da.

Igerilekuan HH, LH, DBH nahiz 14-18 urte artekoei zuzenduriko ikastaroak iragarri dituzte.

Futbol Eskolako izen-ematea irailaren 19an hasiko da

Irailaren 19an egingo dute 2022-23 denboraldira begira Usurbil F.T.-ren baitako Futbol Eskolan izen-ematea, orduotan Haranen:

- 17:30 2014an jaiotakoek.
- 17:45 2013an jaiotakoek.
- 18:00 2012an jaiotakoek.
- 18:15 2011n jaiotakoek.

Kuota eta arropari buruzko informazioa, Haranen

Egun eta ordutegi horretan izena ematera joan ezin duenarentzat, biharamunean, hilaren 20an 18:30-19:30 artean Haranera joatea eskatu du Usurbil F.T.-k. “Kuota eta arropari buruzko informazioa egunean bertan emango zaizue”.

Orbeldi Dantza Taldea ere martxan da

Oiardo Kiroldegian eskainiko dituzten ikastaroetan izena emateko aukera duzue. Informazio gehiagorako eta izena emateko orbeldi.udt@gmail.com

Helduak

- Astelehenetan: Euskal Dantzak, Oinarrizko Taldea.
- Astearteetan: Euskal Dantzak, Talde Aurreratua.
- Asteazkenetan: Plaza Dantza Taldea.

Haurrak (LH-DBH)

- LH 1-2: astelehen edo ostiraletan, 16:45-17:45.
- LH 3-4: astelehen edo ostiraletan, 17:45-18:45.
- LH 5-6: asteazkenetan 16:45-17:45 edo 17:45-18:45.
- DBH: ordutegia zehazteke.

Informazio gehiago orbeldi.udt@gmail.com helbidean duzue eskura.

Ikastaro eskaintza zabala, Einean guraso eskolaren eskutik

Izen ematea zabalik Einean Guraso Elkarteak antolaturiko ikastarootan:

Yoga

■ Luzaketak, arnasketak, lasaitzea...

■ Astean behin 1,5 ordu edo astean bitan 3 ordu, astelehenetik ostiralera (iraila/urria-ekaina).

■ Irakasleak: Katia (636 71 15 14), Sebas (605 72 28 25).

Pintura edota eskulanak

■ Oleoa, akuarela, pastela… (pintura).

■ Teknika ezberdinak ikasi gauza politak sortzeko edo berritzeko (eskulanak).

■ Astean behin 1,5 ordu edo astean bitan 3 ordu, astelehenetik ostiralera (urria-ekaina).

■ Irakaslea: Susana 609 413 883.

Josteko tailerra

■ Sormena eta joskintza.

■ Astean bi ordu, astelehenetan (urria-ekaina).

■ Irakaslea: Ione (673 642 932).

Urriaren 3an ekingo diote txalaparta ikastaroari. Jexux Artze kultur elkarteak sustaturiko ekimena da hauxe.

Txalaparta Eskola

Urriaren 3an ekingo diote bigarren ikasturteari eta izena emateko bide hauek dituzue eskura: 695 71 68 78 / txalapartairakasle@gmail.com. Bideotatik jaso ahalko da baita informazio gehiago. Txalaparta Eskola Jexux Artze kultur elkarteak sustaturiko eskola da, Zumarte Musika Eskolak eta Usurbilgo Udalak lagundua.

Gazte nahiz helduentzako antzerki ikastaroak iragarri ditu Muxurbil antzerki taldeak

Muxurbil antzerki taldea

6 urtetik gorako ikasleentzat, gazteentzat nahiz helduentzat ikastaroak iragarri dituzte antzerki eskolatik. "Astean behin, ordubeteko eskola". Izena emateko helbideotara idatzi: ixabel.agirresarobe@gmail.com / andrea_arruti@hotmail.com

Usurbilgo Kantu Taldea

Astelehenero biltzen segiko dute entsegu saioetarako arratsaldeko 18:00etan Agerialdeko musika gelan. Irailaren 24an itzuliko dira kantu-jirarekin, 12:30ean Mikel Laboa plazara.

Helduen Heziketa Eskola

Irailaren 15ean ekingo diote ikasturte berriari 18 urtetik gorako herritarrei zuzenduriko eskolan. Matrikulazio epea zabalik dute, astelehenetik ostiralera ordutegi honetan: 10:00-13:00/17:00-19:00. Aurrez hitzordua eskatu. Informazio gehiagorako: 943 376 443 / 012734aa@hezkuntza.net.

Santuenea Elkarteak antolaturiko ikastaroak

Ikastaro eskaintza zabala iragarri du Santuenea Kultur Elkarteak ikasturte berrirako. Aeroyoga eta aerofitness ikastaroak astearte eta asteazken arratsaldeetan, irailaren 20tik aurrera. "Aero-restauratiboa" asteazken goizetan. "Joskintza ikastaroa ere izango dugu", gaineratu dute Santuenea K.E.-tik, baina ohartarazi dutenez, eguna zehazteke dute oraindik. Informazio gehiagorako, deitu 670 027 731 telefono zenbakira.

'Sagarrondotik Sagardora' ikastaroa

"Sagarraren heldutasun-analisiak" izeneko saioa ostiralean, irailak 16, 15:30-18:30 artean Potxoenean. "Aitor Etxeandiaren eskutik, sagarraren heldutasuna neurtzeko teknikak ikasiko ditugu, sagarrondoetatik noiz bildu behar diren antzemateko".

15 lagunentzako lekua izango duen saiorako izena usurbilkultura.eus edo alkartasuna.eus bidez eman ahalko da.

Gaztelekuak eta Sexuen Aholkularitza Guneak bideraturiko lanketa herriratzen

Gustuko dudan guztiak ez nau berotzen, berotzen nauen guztia ez dut gustuko. Egunotan Sutegiko erakusleihoan irakur dezakezuen hausnarketetako bat da. Usurbilgo Sexuen Aholkularitza Guneak irailaren 22ra arte eseki duen erakusketatik jasoa. Bost panel guztira eta panel horiek aurreiritziez, izan ditzakegun ideia desegokiez, pentsamenduez, sexualitatean ezagutzeke izan dezakegunaz, aniztasunaz... mintzo dira.

Usurbilgo Sexuen Aholkularitza Guneak Sutegin ipini duen erakusketa irailaren 22ra arte egongo da zabalik.

Usurbilgo Sexuen Aholkularitza Guneak Gaztelekuarekin bideraturiko lanketatik dator Irazu kaleko kultur etxean ikusgai duzuen erakusketa. Lanketa haren emaitzaren lagin baten modukoa da. "Nahi genuena zen jakitea hori ere bazela gune bat ere sexualitatearen inguruan hitz egiteko, beraien erotikaz, harremanez, gorputzez, nola bizitzen ditugun gorputzen aldaketak, zer ideia ditugun...", aipatu udal zerbitzuko arduradun eta erakusketaren antolatzaile Elene Jimenezek NOAUA!-ri azaldu dionez.

Hezitzaileekin eginiko lanketaren ostean, kartel ezberdinetako galderak abiapuntu hartuta, amu gisa baliatzen zituzten 12-14 urteko gazteekin "bapateko elkarrizketan hitz egin eta atera ahal izateko beste erantzun, ideia batzuk. Pizgarriak ziren". Kontuan hartu behar baita, hainbat uneetan "ez dugu hain erraza gai hauek ateratzea eta batzuetan behar dugu. Besteetan zirkulu txikiak ditugu horretaz hitz egiteko. Erakusketa aitzakia bat da, ondo datorkionari heltzeko".

Lanketa honen helburua beraz, "beraiek izan ditzaketen ideiak astintzea zen. Ideia berriak ematea. Batzuk karteltxoen bidez erantzunetan agertu daitezke. Beste batzuk, hezitzaileekin landu behar zituzten".

ERAKUSKETA

"Usurbilgo Sexuen Aholkularitza Guneak Gaztelekuarekin eginiko lanketan oinarritzen da Sutegiko erakusketa"

Lanketa hura herrira zabaldu nahi zuten eta horixe da hain zuzen, erakusketa honekin sustatu nahi dutena. "Ideia eroak ditugu, ideia okerrak ditugu. Gure ideiek gure bizipenekin zerikusi handia dute. Bizipenak subjektiboak dira, bakoitzaren, geure istorio pertsonalen araberakoak". Zerk mugiarazten gaituen ikusteko aukera aparta Sutegiko erakusleihoan egunotan. Eta erakusketaren izenburuak dioen moduan "sexuen ibilbidean, Usurbilgo Sexuen Aholkularitza Guneak bidaidea" izan nahi du. "Gure lan egiteko modua, landu daitezkeen moduak eta gogoeta interesgarriak agertuko zaizkigu".

Sexuen aholkularitza gunea

Lerrootan irakurri ahal izan duzuen moduan, udal zerbitzu hau Usurbilgo Sexuen Aholkularitza Gune gisa izendatu dugu. Sexuen, pluralean. Ez orain arte bezala, "sexu" hitzarekin. Jimenezek azaldu dio NOAUA!ri aldaketaren zergatia. "Sexu hitza egiten dugunarekin lotzen dugu, sexuen aholkularitza gunea ordea garenarekin". Eta ez beraz hainbeste, egiten dugunarekin. Sexuen hitza aniztasuna islatzera dator. "Gizon-emakumeak esaten dugu sarritan, baina izaki sexutuak gara, ezaugarri desberdinekin. Honek nolabait subjektu sexutuak jartzen ditu erdigunean". Eta erdigune honetatik abiatuta, "tiraka joaten gara zer egin nahi dugun, zer egiten dugun, nola. Baina gakoa nigan edo gugan dago", udal aholkularitza guneko kudeatzaileak gogorarazi digunez.

Eta batzuetan, ageriko garrantzia duen gako horretaz ahazten garela dio Jimenezek. Ahaztu egiten zaigu, "eta ondo funtzionatu nahi dugu, teknika huts bat balitz bezala. Baina ez da teknika hutsa, hor akats handia dago. Gauza batzuk interesgarriak dira jakitea; gorputzak ezagutzea adibidez". Norbere desira ordea gehiago dago lotua, "garen horrekin. Gure elkarrizketaren eta mugiarazten digun horrekin. Batzuk mugitzen gaituzte eta beste batzuk ez. Eta mugimendu horretatik sortzen da zerbaiten gogoa. Modu batekoa izan daiteke zurekin eta beste batekin beste batekoa".

Adin guztientzat

Usurbilgo Sexuen Aholkularitza Guneak "informazioa, formazioa eta bikote edo bakarkako aholkularitza sexologikoa" eskaintzen jarraituko du orain arte bezala, aurrerantzean ere sexu-identitatearen, desiraren, orientazioaren, haziera erotikoaren eta gai gehiagoren inguruan. "Adin guztietako pertsonei zuzendua, edozein zalantza argitzeko. Harremanetarako zailtasunak gainditzeko laguntza" eskaintzen segiko du bideotatik:
sexuaholku@usurbil.eus
697 919 516.

Santuenea, festen atarian

Santuenea jai giroan murgilduko da ostiralean. Haur, gazte nahiz helduentzako hitzordu ugari daude aukeran. Eta baita lehiaketa ugari ere. Hauxe da jai batzordeak prestatu duen egitaraua.

Pala txapelketa

Irailak 15, osteguna

■ 19:00 Pala txapelketa, finala.

Jaiak

Irailak 16, ostirala, Mozorro eguna

■ 17:00 Txupinazoa. Ondoren, ur jolasak eta globo-gerra.
■ 18:00 Txokolatada Tragoxkan.
■ 18:30 Buruhandiak.
■ 18:30 Karro-kalejira eta poteo mozorrotua.
■ 21:00 Patata tortilla lehiaketa (norberak ekarria). Ondoren, tortillekin auzo-afaria.
■ 23:30 Dj GorkaMendi.

Buruhandiak egunero aterako dira kalera.

Irailak 17, larunbata

■ 11:00 Familia jolasak.
■ 12:00 Kilkerband txaranga.
■ 13:00 Buruhandiak.
■ 13:30 Haur bazkaria (norberak ekarria, bertan edaria eta postrea banatuko dira).
■ 15:30-16:00 Muserako izen-ematea.
■ 16:00 Mus txapelketa.
■ 16:00 Haurrentzako tailerrak.
■ 17:30 Kuadrilen arteko jolasak.
■ 17:30 Txokolatada Zaharren Egoitzan.
■ 19:00 Sardina-jana.
■ 19:00 Buruhandiak eta Kilkerband.
■ 21:30 Pottotte elektrotxaranga.
■ 00:00 Dj Dusaint eta Inkilt, Dj Hainar.

Irailak 18, igandea, Jubilatuen eguna

■ 09:00 Esnadeia.
■ 11:00 Zirku tailerra.
■ 11:00 Toka eta igel txapelketak.
■ 12:00 Hamaiketakoa Tragoxkan eta Zaharren Egoitzan.
■ 12:00 Zanpantzarrak.
■ 14:00 Auzo-bazkaria. Tiketak Zaharren egoitzan, Tragoxkan, Aitzagan, Artzabalen.
■ 18:30 Magia poteoa Asier Kidamekin.
■ 18:30 Buruhandiak.
■ 19:00 Piper dastaketa.
■ 19:30 'Balkoi premiyua'.
■ 21:00 Festen amaierako traka.

Lehiaketa ugari antolatu dituzte jai egunetan

Irailak 16 ostirala: Etxean egindako tortilarik onena argitzeko lehiaketa

Etxetik eginda eraman beharko da frontoira, eta ondoren, epai-mahaiak erabakiko du zein den onena. Afaria egingo dute gero, eta tortila han banatuko badute ere, bakoitzak bere janaria eraman beharko du tortila gutxiegi izanda ere.

Irailak 17 larunbata: Mus zaleen eguna

Herri eta auzoetan tradizio handiko ekintza izaten da mus txapelketa, eta mus zale amorratuek aukera izango dute aurten ere euren maila erakusteko. Irailaren 17an izango da hori. Partidak 16:00tan hasiko badira ere, izena eman ahal izateko orduerdi lehenago hurreratu beharko dute txosnagunera interesa dutenek. Bikoteko 20 euro ordaindu beharko da jokatu ahal izateko.

Lau onenek sari bikainak eskuratuko dituzte: lehen saria bi txapel, bi trofeo, bi pertsonentzako afaria, bi marisko lote, onddo otar bat eta bi xanpain botila izango dira. Bigarrenek ere sari ederrak lortuko dituzte: bi trofeo, zortzi txuleta, bi gazta eta bi xanpain botila. Hirugarrenentzat ere badaude sariak: lau txuleta eta bi xanpain botila. Azkenik, laugarrenek bi baserriko oilasko eta bi xanpain botila eramango dituzte etxera. Bada zer irabazi Santuenean.

Balkoirik ederrena zein den argituko dute jaietako azken egunean

Aurtengo Santueneko jaietan lehiaketa ugaritan parte hartzeko aukera izango da, eta berrikuntza nagusia "balkoi premiyua" izango da.

Igande honetan eman behar da izena

Irailaren 11n, goizean, frontoian zenbakiak banatuko dituzte balkoi bakoitza izendatzeko. Egun horretan zenbakia hartzerik ez duenak, auzoko tabernetan izango du aukera aste osoan zehar zenbakia hartzeko. Astean zehar, auzokoek aukera izango dute txosnan politenaren aldeko botoa emateko. Hilaren 18an, igandean, garailea izendatuko dute.

Argazki lehiaketa

Santuenea Elkarteak argazki lehiaketa antolatu du. 19. edizioa du lehiaketak eta jaiak dira erretratuetarako hautatu duten gaia. "Santueneko festak" islatzen dituzten irudiak aurkezteko epea irailaren 30era artekoa izango da.

Hiru adin tarte

Hiru adin tarteok parte har dezakete: 4-7 urte artekoek, 8-16 urte artekoek eta 17 urtetik gorakoek. "Talde bakoitzeko irabazleak saria jasoko du", ohartarazi du argazki lehiaketako antolakuntzak.

Argazkia gutunazal itxi batean aurkeztu behar da

■ Txapelketara argazki bakarra aurkeztu ahalko da, gutunazal itxi batean eta azalean adina zehaztuta.
■ Gutun barruko argazkiaren atzekaldean egilearen izena eta telefono zenbakia idatzi beharko da.
■ Gutuna argazkia duela, Santuenea elkarteko postontzian sartu edo helbide honetara bidali beharko da: alaznelazkano1@gmail.com

Arkaitzerrekako kutsadurari "eutsi" nahian

Zubietako erraustegi ondotik igarotzen den Arkaitzerrekak egunotan zuen itxura duzue ondoko irudian. Uda honetan hainbatetan hizpide izan dugun moduan, kutsatua, aipatu hondakinen tratamendu planta zeharkatu osteko eremuan. Eta egunotan baita "hesitua" ere. Ikusi bestela, zer nolako hesia jarri dioten, ahal den moduan, errekara isurtzen ari diren zikinkeriari "eusteko". Irudiok jasotzeko unean bi teknikari zeuden errekan behatze lanetan. Momentuz, isiltasuna nagusi ordea erakundeetatik. Kutsadurak begi-bistakoa izaten segitzen du azken bi hilabeteotan.

Kutsadurak begi-bistakoa izaten segitzen du azken bi hilabeteotan.

Isiltasuna

Uztailean jakinarazi zuten herritarrek eta Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak beste behin Arkaitzerrekan jazotakoa. Aipatu herri mugimenduak ordutik erakundeen isiltasuna salatu izan du. "Inolako informaziorik ez dute zabaldu gertakizunaz ez GHKko arduradunek eta ez horren jarduera kontrolatu behar duten instituzioek, Gipuzkoako Foru Aldundiak bezala Eusko Jaurlaritzak eta ustez gure ura zaindu behar omen duen Ura agentziak". Aldiz, salatu dutenez, "Gipuzkoako herritarrek, tartean erraustegia ate ondoan sufritzen dutenek, jasotzen dituzten albiste bakarrak herri mugimenduko boluntarioek lortutakoak dira. Agintariak, halakoak ez gertatzeko neurriak eta kontrolak ez jartzeaz gainera, mutu gelditzen dira, edo aukera daukaten aldi oro, herritarron osasunaren aurretik, enpresa pribatuen interesak babestera mugatzen dira".

> ARKAITZERREKAN
>
> ***"Urgentziazko analisi horiek erakutsi dute 2022an aurkitutako kutsadura hau handiagoa dela 2020ko maiatzean aurkitu zena baino"***

Kezka agertu dute, mugimenduak berak eta Usurbilgo Udalak Arkaitzerreka kutsatutik bildutako laginak laborategira eraman eta handik jasotako emaitzekiko. "Urgentziazko analisi horiek erakutsi dute, alde batetik, Arkaitzerrekan 2022an aurkitutako kutsadura hau handiagoa dela 2020ko maiatzean aurkitu zena baino. Orduan zientoka arrain eta aingira azaldu ziren hilda Arkaitzerrekan. Oraingoan horrelako argazkirik ez da ikusi, ziurrenik erreka geroztik "erreta" dagoelako arrainik gabe, baina laborategiko analisiek erakutsi dute oraingoan are kutsadura handiagoa dagoela Arkaitzerrekan". Zehaztu dutenez, "kloruroetan, amonioan, konduktibitatean eta DQOn (Oxigenoaren Eskaera Kimikoa) ezohiko maila altuak aurkitu dira. Baina, gainera, gutxienez hiru metal astunen konzentrazioak askoz handiagoak dira ur edangarriak eraman ditzakeen gehieneko maila baino: Arkaitzerrekan kobreak bikoiztu egiten du urak edateko modukoa izateko behar duen topea eta nikelaren kasuan lau aldiz biderkatzen du".

Egoera honetan herritarrei adi egoteko deia egina die Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak; "etsipenean ez erori eta jarraitzeko mobilizatzen gure eta gure ondorengoen osasunaren, bizi duinaren, enpleguen eta etorkizunaren alde".

Fiskaltza ikertzen

GuraSOSek fiskaltzan salatu zuen uztailean Arkaitzerrekan jazotakoa eta Gipuzkoako Ingurumen Probintzia Auzitegiko fiskalburuak ikerketa jarri zuen martxan, "kutsaduraren jatorria, kausa eta norainokoa zehazteko". Fiskalburuak Ingurumeneko Fiskalaren esku utzi zuen ikerketa GuraSOSek uztaila amaieran berri eman zuenez, eta uztailaren 19an SEPRONAk, Guardia Zibilaren ikerketa taldeak, egiten ari diren hainbat eginbide agindu zituen. GuraSOSek aditzera eman zuenez, egun haietan Guardia Zibilaren bi ibilgailu ikusi zituzten Arkaitzerreka inguruan "eta gaur laginak hartzen ari dira. Beraz, hemendik aurrera, Guardia Zibilaren eta Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Fiskaltzaren esku dago gertatutakoa ikertzea".

Usurbilgo Udalak lortutako ur-laginen analisien lehen emaitzak ezagutu ondoren, GuraSOSek fiskaltzari adierazi zion "begi-bistakoa dela kutsadura handia egon dela, eta horrek eragina izan dezakeela errekaren baldintzetan, berez prekarioak direnak, 2020ko amonio-isurketen ondoren. Izan ere, aurkitutako amonio-maila, amonio-maila optimoa baino 200 aldiz handiagoa da Euskal-Pirinioetako ibaietan, azaleko uren ingurumen-kalitateari buruzko arauetan aurreikusia, 0,6 aldiz handiagoa baita aurkitutakoa 117koa denean".

Gauza bera esan daiteke aurkitutako kloruroen kontzentrazio handiaz, "kutsaduraren adierazle bat baita, oxigenoaren eskaera kimiko handia eta eroankortasun oso handia bezala".

Azkenik, GuraSOSek fiskaltzari jakinarazi zion aztertutako uretan metal batzuen maila esanguratsuak aurkitu zirela. "Kobrea, giza kontsumorako uretan ezarritako muga baino ia 3 aldiz handiagoa; Nikela, lau aldiz handiagoa; eta Kromoa, bikoitza baino gehiago; azken horien arabera, kutsaduraren jatorria bateragarria da TMB eta erraustegiaren jarduerak eragin dezaketen kutsadurarekin, iragazketa gertatu den lekuan baitaude".

Arkaitzerrekako kutsadura eta bergararrak batu ditu, erraustegiak geratzeko giza kateak

Erraustegiak geratzeko aldarria Kontxako estropadetara itzuli da. Alderdi Ederretik abiatuta, aipatu Donostiako hondartza inguratu zuen irailaren 11ko bigarren eta azken jardunaldi egunean. Urte luzez egin duten moduan, azpiegiturok geratu, eta alternatiba osasuntsuago, merkeago eta jasangarriagoen alde mobilizatu ziren hainbat herritar giza kate luzean.

Alternatiba osasuntsuago, merkeago eta jasangarriagoen alde mobilizatu ziren aurreko igandean Donostian.

Bat egin zutenen artean aurten, Bergarako Larramendiko Arnasa herri plataformako kideak, hondakin industrialak errausteko planta eraiki nahi baitiete eta azken hilabeteotan protesta ekimenetan murgilduak dabiltza. "Azken urtean jakin da Eusko Jaurlaritzak eta Valogreen enpresak Bergaran hondakin industrialen erraustegi bat eraiki nahi dutela. Zaldibarren gertatutakoaren ondoren hondakin hauei "irtenbidea" eman behar diete. Hondakinak murriztera eta berreskuratzera derrigortu beharrean, Eusko Jaurlaritzak "alfonbra gorria" jarri dio Valogreen-i Euskadiko zazpi paper fabriken hondakinak erre ditzan", salatu zuten giza katearen deitzaileek, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduko kideek. Herritarrek eta bertako Udalak aurka egin arren, "Eusko Jaurlaritzak jada eman du beharrezkoa den Ingurumen Baimen Bateratua". Jaurlaritzaren "jarrera antidemokratikoa" salatu zuten.

BERGARAN

"Azken urtean jakin da Eusko Jaurlaritzak eta Valogreen enpresak Bergaran hondakin industrialen erraustegi bat eraiki nahi dutela"

"Denak mutu daude"

Giza katera batu zen salaketetako bat ere nabarmentzekoen artean, urte luzez Kontxan egin ohi duten mobilizazio honetan; uda honetan berriz hizpide izan dugun Zubietako erraustegi ondotik igarotzen den Arkaitzerreka. Estropadak ospatzen ari ziren ur ertzeraino eraman zituzten iragan igandean, Zubietako eremu horretan oraindik orain kutsatua segitzen duen errekaren irudiak. "Ez dago arduradunen aldetik inolako konponbiderik. Arazo hauen guztien aurrean ez dago inoiz azalpenik erraustegiaren arduradun tekniko eta politikoen aldetik. Denak mutu daude: Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, Donostiako Udala, GHK, URA", Arkaitzerrekak bi urteotan bigarrenez kutsatua segitzen duen artean.

Errekarenaz gain, erraustegiak piztuta daramatzan bi urteotan "etengabe ari da arazoak sortzen. Hiru aldiz erre da transformadorea, pilatutako zaborretan sute bat izan da, gutxienez 86 aldiz itzali eta piztu dira labeak, honek suposatzen duen kutsadura gaindosiarekin. Momentu honetan bertan transformadorea hondatuta dute eta elektrizitatetrik sortu gabe ari dira zaborrak erretzen", ohartarazi dute Erraustegiaren Aurkako Mugimendutik.

Erraustegiak piztuta daramatzan bi urteotan "etengabe ari da arazoak sortzen", Errausketaren Aurkako Mugimenduak salatu zuenez.

TXIRIKORDA JARDUNALDIAK

belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa

POTXOENEA KULTUR ETXEAN

IRAILAK 23 ostirala
18.00-20.00

Mahai ingurua: Belaunaldi arteko esperientziak

- Matiazaleak
- Hernani auzo-zaintza

IRAILAK 24 larunbata
10.00-13.00

Hitzaldiak: Etxebizitza komunitario eta kooperatiboen esperientziak -

- Errenteria, gazteentzako etxebizitza komunitarioak
- Entrepatios (Madril)

Txirikorda proiektuaren aurkezpena

TXIRIKORDA

Usurbilgo Udala

“Ostirala izango dugu katekesi eguna”

Aste honetan zehar astelehenetik igande bitarte, hilaren 19tik 25a arte Usurbilgo Salbatore Parrokian eskaintzen duten Katekesian izena emateko epea dute. 2. mailatik aurrerako haur eta gaztetxoei korreoz iritsiko zaie izen-emate orria eta modu telematikoan egin eta entregatu beharko dute. 1. mailan izena eman nahi dutenek berriz, salbatoreparrokia@gmail.com edo 943361239 telefono zenbakian harremanetan jarri beharko dute. Katekesi saioak urriaren 12an hasiko dira.

Katekesi taldeko izen-ematea irailaren 25era arte egongo da zabalik.

NOAUA! Zertan datza Katekesi prozesua Usurbilen?

Katekista Taldea: Katekesi prozesua Usurbilen, gaur gaurkoz, 6 urteko prozesu bat da. Lehen 3 urteetan Jesusen jarraitzaileen lehen hastapenak lantzen dira eta etapa hau Lehen Jaunartzeekin bukatzen da, maiatzaren azkeneko igandean. Ondoren, nahi dutenek, formakuntza sakonagoa jarraitu dezakete 3 urtez. Bertan taldeko fede-esperientziak elkarbanatzen dira, ebanjelio-baloreak aztertuz eta horietan hausnartuz, beti ere gaztetxoen heldutasunari egokituz.

KATEKESI TALDEA

“Katekesi prozesua Usurbilen, gaur gaurkoz, 6 urteko prozesu bat da”

Behin lehen jaunartzea eginda, taldeak sortzen dira katekesian jarraitzeko? Ziortzak hartzen du zuen lanaren erreleboa DBHko ikasleekin?

Lehen Jaunartzeen Egunari Katekesi Festa deitzen diogu eta bertan Lehen Jaunartzeak eta 6.mailakoen bukaera ospatzen ditugu. 1., 2. eta 3. mailak Lehen Jaunartzearekin bukatzen dira. Bigarren etapa egin nahi dutenek, 4.-6. maila arte dute aukera. Ondoren, Ziortzako ibilbidea egiteko aukera dute, bertan giza-baloreak lantzeko aukera dutelarik. Ziortzako esperientzia herri osorako dago zabalduta.

2. mailatik aurrera eskaintzen dituzue saioak, baina 1. mailako haurrek ere aukera izan dezakete saioak egiteko. 1. mailako haurren izen-ematea ohikoa da?

Izena emateko momentuan, pandemia garaian aurrez aurrekoa ekidin behar izan zenez, familiei modu telematikoan egiteko aukera eman zitzaien. 2. mailatik gorakoen datuak jasota ditugunez, izena emateko epean prozesuarekin jarraitu nahi dutela baieztatu behar dute. Aldiz, 1. mailakoek behar diren datu guztiak adierazi behar dituzte.

“Familia-katekesia da eskaintzen duguna”

NOAUA! Astean edo hilabetean zenbat saio izaten dira eta zenbat denborakoak?

Ostirala dugu Katekesi eguna eta 2. mailatik gora 15 egunero dituzte saioak, 1. mailakoek aldiz, hilean behin. Saioak ordubetekoak izaten dira. Saio hauetan elkarbanatzen dena, aldez aurretik familian lantzen dute. Horretarako familiek hilean behin formazio bat jasotzen dute etxean landu behar dutena sakontzeko. Azken finean, familia-katekesia da.

Azken urteetan zein da joera?

Jaiotzeak gutxitzen ari diren proportzioan, azken urte hauetan gutxitzen ari da Katekesira hurbiltzen ari den gazte kopurua. 2021-2022 ikasturtean 34 gaztetxo izan ditugu guztira. 8 katekistek laguntzen diegu prozesuan.

Lehen Jaunartzea 10 umek egin dute eta 4 gaztetxok Katekesi etapari bukaera eman diote.

Katekesian zein metodologia jarraitzen duzue?

Lehenengo 3 urteetan Elizbarrutiak eskainitako programari jarraitzen zaio, geure dinamikak eta material propioekin osatuz. Bigarren zikloan (4.-6.) guk sortutako dinamikak eta materialak eginez giza-baloreei garrantzia gehiago emanda: talde dinamikak, ikus-entzuneko materialak erabiliz hausnarketa egiteko… Hilean behin, azken igandean, familia ospakizun bat izaten dugu.

Matrikulazioa

1. mailan apuntatu nahi dituzten familiek Parrokiaren korreo elektronikoan (salbatoreparrokia@gmail.com) edo Parrokiako telefonoan (943 361 239) utz dezakete telefonoa eta izena. “Gu jarriko gara harremanetan familiekin”, ohartarazi dute Katekesi taldetik.

- Izena emateko egunak: irailaren 19tik 25era arte.
- Katekesi saioen hasiera: urriaren 12a.

Antxeta TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreak, hanburgesak..
paellak enkarguz!
619 40 91 98
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 71 38 03

EROSKI city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

JUANTXO BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

Otar-Goxo
Elikagaiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

“Hizkuntza etxea da”

Komunikazio tresna bat soiletik haratago, elkarbizitzarako, bizi garen toki horretakoa, bertakoa sentitzeko bitartekoa. Hala ikusi edo bizi dute geure ama-hizkuntza, ikasketa prozesu betean diren lerrootako bi lagun eta herrikideok; Eli Bellok eta Anna Puibertek. Biak ala biak azken ikasturteotan euskalduntze bidean dira Etumeta AEK euskaltegian.

Anna Puibert Sabadellen jaioa da eta azken ikasturteotan euskalduntze bidean da, Etumeta AEK euskaltegian.

Venezuelan sortua, 2016an heldu zen Usurbila Eli. Gure artera etortzekotan zela izan zuen euskararen eta Euskal Herria existitzen zenaren berri. “Hemengo berri eman zidaten. Ikertzen joan nintzen. Hona heltzean denek hitz egiten zuten euskaraz”. Lehenago saiatu arren, ez zen talderik osatzerik izan eta iaz hasi zen euskara ikasten. “Lotsati samarra naiz eta oso baliagarria izan zitzaidan askatzeko”. Lauko taldean hasi zen. “Polita izan zen ikaskideekiko hartuemana, lagunak egin nituen”, kontatu digu Bellok.

Aholkua hasiberriei

Euskara hutsetik ikasten hastekoa denarentzat aholkagarria guztiz, aurrez aurreko klaseekin ekitea. “Oso garrantzitsua da irakasle bat alboan izatea. Bada bestela egiten duen jendea, baina ikasketa prozesua luzatzen da gehienetan. Bestalde, prestasuna izan behar duzu, argi izan leku batean geratu behar zarela bizitzen, ahalegin bat eskatzen baitizu denbora eta dedikazio aldetik”, azaldu digu Annak. Sabadellen (Katalunia) jaioa, urte askotan uda garaia inguruotan igarotakoa da Puibert. Gustuko lekuan bilakatu eta Bartzelonan bizi ostean, Bilbora etortzea erabaki zuen proba moduan, handik Donostiara gero, Lasartera segidan eta duela bi urtetik Usurbilen bizi da. Euskal Herrian bertan, bizileku aldaketa guztiotan, nabaritu du desberdintasunik euskararen erabileran. “Bilbon bizi nintzen lehen urtean kalean oso gutxi entzuten nuen. Donostian aldaketa handia sumatu nuen. Handik udalerri txikiagoetara bizitzera joanda erabilera handiagoa da”, dio Puibertek. “Hori guri ere, katalanoi gertatzen zaigu, amankomunean dugun zerbait da”, gaineratu du.

ANNA PUIBERT, ETUMETAKO IKASLEA

“Euskara hutsetik ikasten hasteko, oso garrantzitsua da irakasle bat alboan izatea”

Bertakoa sentitzearen garrantzia

Katalanaren eta euskararen artean, saihestezinak diren antzekotasunak azaleratu dira Anna elkarrizketatzerakoan. Euskara ikastera bultzatu duen arrazoia esaterako. “Komunikatu ahal izatea, bertakoa sentitzea, nahiz nire nortasuna ehuneko ehunean katalana izan. Niretzat horrek berebiziko garrantzia du”, kontatu digu Annak. Oso argi adierazi zaigu. “Zuk 30 urtez leku batean bizi eta beti kanpoko gisa sentitu nahi duzu? Nik ez”. Euskara ikastea ez dela erraza, horretaz jabetzen da, baina ez du beti itzultzaile lanak egingo dizkion inoren mende egon nahi, autonomia maila bat izan nahi du. “Haurra izanez gero irakaslearekin erraz komunikatu ahal izatea, prentsa irakurtzea, jendearekin harremantzea...”. Eta bertako hizkuntzaren eta kulturaren zaintza bermatzen laguntzea. “Herri txikia da hau, denon artean zaintzen ez badugu, desagertzeko arriskuan egongo da. Denon zeregina da beraz, bertan bizi direnena eta bizitzera datozenena. Azken finean, elkarbizitza eta errespetua da. Hizkuntza komunikazio tresna bat baino gehiago da; baloreak, nortasuna, herria da, kultura, historia... Hori guztia da niretzat”. Egun aldrebesen bat duenean ohartzen da, sorterriari, Kataluniari lotzen dion zerbait bilatzen ahalegintzen dela. “Etxean sentitu nahi duzu. Hizkuntza etxea da. Ezin duzu hondatu beste pertsona baten etxea, are gutxiago bere etxe propioan”.

Ildo beretik mintzatu da Eli. “Hemen bizi behar badugu, ekarpenen bat egin beharko dugu eta ildo horretan, euskara ikastea oso garrantzitsua da hemen bizitzeko”. Bera bezala, beste herrialde batetik gure artera bizitzera datozenei inplikatzeko deia egin die. “Zuen ama-hizkuntza da, zaindu beharra dago, hemen bizi zaretenon eta hona bizitzera gatozenon artean”.

Eli Bello, euskaltegiko ikaslea.

“Orain ereindakoa etorkizunean jasoko duzu”

Elik arreta soziosanitarioa eskaintzen duen eremuan lan egiten du, adineko euskaldunekin ari da lanean. “Euskaraz hitz egiten zuten eta nik ez nuen ezer ulertzen”, oroitzen du Elik. “Haien etxean sartzeko konfiantza ematen dute eta zer hobeto zuk zure aldetik zerbait gehiago jartzea, maitasunez lan egin ahal izatea. Horregatik matrikulatu nintzen euskaltegian, jasotakoa bueltan emateko”. Annak aipatu moduan, Elik ere gauza bera dio. “Badakit ez dela erraza, niretzat ez da erraza izaten ari. Baina nik uste dut norberak zerbait gehixeago jarri behar duela bere aldetik”, dio Bellok.

Etumeta AEK euskaltegian abian duen prozesuaren baitan, “oinarrizkoa ikasten nabil, nire lanean euskaraz moldatu ahal izateko. Egia esan, ekarpen handia egin dit”. Ez zaio erraza izan euskara ikasten hastea. “Asko exijitu diot neure buruari, batzuetan haserretzen naiz, eta halakoetan geratu beharra izaten dut, gero lasaitu eta pixkanaka segi. 20 urtez ezer ikasten egon gabe eta aldi berean lanean egonda, kosta zait bai”. Halere, segida ematekotan da Bello. Euskaltegian zabalik dute 2022-23 ikasturterako matrikulazio epea, eta izena ematekotan da Eli. “Nire lan ordutegiari erreparatu behar diot, konplexua baita. Baina euskara ikasten segi nahi dut bai”, iragarri digu Bellok. Annak ere bai, bere hirugarren ikasturtean murgiltzeko prest da.

Matrikulazio epea irailaren 28ra arte zabalik da Usurbilgo euskaltegian.

“Bertako hizkuntza ikasi gabe, ghettoan biziko zara eta hori ez da ona, ez kulturarentzat ezta zuretzat ere, isolatua geratuko baitzara”

Arreta pertsonalizatua

Euskara ikasi edo maila hobetzekotan denarentzako mezua. “Animatu asko, Usurbilen oso erraz jartzen dizute. Taldean egonik ere, arreta oso pertsonalizatua eskaintzen dute”, dio Annak. Eta gogoan izateko eskatu du, “orain ereindakoa etorkizunean jasoko duzu bueltan; terraza batean esertzea, jendea agurtzea... Bi etxe dituzula sentitzea, nire kasuan bezala. Sorterria, Katalunia eta hemengoa ere sentitu ahal izatea. Pertsona baten bizimodua baldintzatzen du. Bertako hizkuntza ikasi gabe, ghettoan biziko zara eta hori ez da ona ez kulturarentzat ezta zuretzat ere, isolatua geratuko baitzara”. Ikastera doanari argi izateko eskatu dio, “hau iraupen-lasterketa bat da. Bakoitzak bere prozesua bizi dezala, ez alderatu ondokoarenarekin”.

Izena emateko garaia

Matrikulazio epea zabalik dago Etumeta AEK euskaltegian irailaren 28ra arte. Maila guztietan trebatzeko aukera eskaintzen dute aurrez aurreko eskolen eta jarraipena bermatzen duten tutoretza zerbitzu pertsonalizatuen bidez. Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak ere bai; hau da, A1, A2, B1, B2, C1, C2 tituluak eskuratzeko lanketa prozesuak. Mintzamena hobetzeko astean bi saioko ikastaroak. Aurrez aurreko eskoletara joan ezin dutenentzat, autoikaskuntzaren alternatiba ere hor dute interesdunek. Eta gogoan izan, Usurbilen euskara ikastea doakoa dela, %100eko dirulaguntzak eskaintzen ditu Udalak euskalduntzeko, baldintza zehatz batzuk beteta; errolda, asistentzia... Ikasturte amaieran, ekainean bideratzen dira dirulaguntza eskaerak.

Matrikulatzeko ordutegi honetan joan gaitezke Nagusia kalea 43, behea helbidean kokaturiko Etumeta AEK euskaltegiaren egoitzara:

Astelehenetik ostegunera, 11:00-13:00 artean edo 17:00-19:30.

Ostiraletan goizez bakarrik, 11:00-13:00 artean.

Informazio gehiagorako:
607 609 379
usurbil@aek.eus

Udal dirulaguntza gehiago, betiko onartuak

Ingurumeneko eta nekazaritza zein abeltzaintza arloetako dirulaguntza eskaerak behin betiko onartu ditu Usurbilgo Udalak. Argibideak Udalak berak emanak ditu irailaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaraturiko iragarkian.

Oroimen gune berria Irubiden

1936ko gerran exekuzio gune izandakoa oroimenerako eremuan bilakatuko du Usurbil 1936 elkarteak igande honetarako, irailaren 18rako, eguerdiko 12:00etan Irubiden deitu duen ekitaldiaren bidez. Oroigarria kokatuko dute bertan, bertan egon daitezkeen herritar guztiei aitortza egin eta “urteetan ezkutuan egondako bidegabekeria nolabait ikusgarri egiteko”.

Zirkobirakoekin kalejiran

Hankapaloak, ekilibristak, pailazoak, akrobatak… Zirkobira ikuskizuna antolatu du NOAUA!k, Plis Plas Txalo Ta Jolas ekimenaren baitan irailaren 23rako 18:30ean, Artzabaldik Mikel Laboa plazara. Euria bada, frontoian ospatuko da.

Masajista zerbitzua Gure Pakean

Usurbilgo jubilatuen elkartetik iragarri dutenez, “Gure Parkeak laster masajista zerbitzua izango du”. Pentsiodunek prezio bereziak izango dituzte. Informazio gehiago, ohiko ordutegian Gure Pakeak Artzabalen duen egoitzan. “Aprobetxatu guztiontzat onuragarria izan litekeen zerbitzua”, luzatu dute gonbita.

Iraileko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz *Axpi*.

Puntapaxeko sorginaren EROskopoa

ARIES

Pelikuletan agertzen diren maitasun erromantikoaren zain zaude, baina oso oker zabiltza. Maitasuna gauza txikietan dago.

Hileko aholkua: Adibidez, zeloaren hasiera aurkitzen dizun pertsona horretan.

CANCER

Ikasturte berrirako asmo berrien artean gehiago irakurtzea komeni zaizu.

Hileko aholkua: Kamasutrarekin hasi, marrazki asko ditu eta.

LIBRA

Marte, Artizarra eta Saturno lerrokatuta izango dituzu hilabete honetan.

Hileko aholkua: Kasik hobe duzu irailean etxetik ez ateratzea.

CAPRICORNIUS

Emozio berriak bizi nahi dituzu? Ohiko kirolez aspertuta? Igande goizak beste era batera bete nahi dituzu?

Hileko aholkua: Endika Abril errebote txapelketa jarraitu dezakezu Zubietan aste hauetan!

TAURUS

Ikasturte berria martxan dago eta oraindik zalantza egiten duzu zein ikastarotan hasi hainbesteko aukera artean.

Hileko aholkua: Denetan izena eman! Zunba, buztingintza, pilates,...

LEO

Datozen asteetan kontu handia izan beharko duzu diruarekin, erraz ihes egingo dizu eta. Neurriak hartu behar dituzu lehenbailehen.

Hileko aholkua: Txerri itxurako itsulapikoa erostea izango duzu onena.

SCORPIUS

Naturara hurbiltzeko beharra sentituko duzu datozen asteetan, eta on egingo dizu paisaje berdeak.

Hileko aholkua: Artzabaleko tirolinan ibiltzeak ez du balio.

AQUARIUS

Bizitza baimenik gabe pasatzen da, beraz, disfrutatu eta erokeri bat egiteko garaia duzu hauxe.

Hileko aholkua: Carpe diem!

GEMINI

Uda bukatu da eta dieta egiten hasten da jende asko, baina zu ez. Zu dieta guztien gainetik zaude!

Hileko gomendioa: Izan ere, sagar bat jatea oso ona da... gose izaten jarraitzeko.

VIRGO

Pandemiaren ondoren, urtebetetze ospakizun ederra prestatu behar duzu, bizipozaren alde.

Hileko aholkua: Ospatu gaur izango zarela inoiz baino gazteagoa!

SAGITARIUS

Oso ondo dago teknologia berriak erabiltzea zure azukre koxkorra aurkitzeko, baina hilabete honetan modu analogikoan aurkituko duzu maitasuna.

Hileko aholkua: Zatoz Santueneko jaietara!

PISCIS

Uda laster amaituko dela eta triste zaude.

Hileko aholkua: Pikondo baten azpian etzan eta arnasa hartu: ez al da zoriontasunaren usaina?

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia eta terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume batentzako. 618032966

Usurbilen bizi den mutil gazte ukrainar batek gela bat alokatu beharra du. Urgentziazkoa da. 649 429 416

Pisu bat epe luzerako alokatu nahi dugun bikotea gara. Lan egonkorrarekin. 611621181.

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 622925562

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605142943.

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Telefono zenbakia: 622396941 (Patricia).

MOTORRA

Salmenta, garajeak

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

Ezinduentzako motorra salgai: 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zerbitzaria behar dugu asteburuetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444

Lan eskaerak

Kurtsoan zehar klase partikularrak emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta haurrak zaintzen esperientziaduna. 679219805 (Irati)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrak emateko lan bila nabil. 688645491 (Nahia)

Ostalaritzan edo pintura lanetan zein igeltseritzan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

Emakumeak orduka zaintzeko lan bila nabil goizetan, arratsaldetan zein gauetan. 609 647 728

Umeak zaintzeko eta ingelesa irakasteko prest dagoen neska gaztea. 644 716 739

Adinekoen eta haurren zaintza lana edota etxeko garbiketak egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Umeak zaintzeko prest dagoen gazte euskalduna. Jada umeekin esperientzia badaukat. Interesatuak: 688 73 43 44

Margoketa lanetan, altzariak zaharberritzen 30 urteko esperientzia. 626 10 70 76.

Erizain laguntzailea naiz eta pertsona helduak zaintzeko edo garbiketak lanak egiteko lan bila nabil. 672 587 671

Umeak zaintzeko prest. 695 184179 / aneseoane@gmail.com

Hotel, jatetxe, soziedade edo etxeetako garbiketa lanak egiteko prest: 671763558

BESTELAKOAK

Gutxi erabilitako lau gurpil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

600 litroko altzairu herdoilgaitzezko (acero inoxidable) kupela daukagu salgai. Sagardoarekin erabilitakoa: 620024663.

San Estebanen (Zabale inguruan) betaurreko graduatu batzuk aurkitu ditut. Galdu dituenak Udaltzainetan dauzka jasotzeko.

Zorionak Areia eta June!
8 eta 12 urte bete berri dituzue.
Zorionak eta muxu asko etxekoen partetik!

Heriotzak

Kontxi Irureta Alzugaray
Irailaren 2an hil zen, 68 urterekin



Heriotzak

Domitila Lopez Curiel
Irailaren 4an hil zen, 83 urterekin

Zorionak Izaro!!
12 muxu erraldoi, zure urtebetetzea ospatzeko.

Eskubaloi partidak Oiardo kiroldegian

Irailak 17, larunbata
Lagunarteko partidak
■ 10:00: Usurbil- Tolosa kadete mutilak (Euskal Liga).
■ 12:00: Usurbil-Elgoibar jubenil neskak (Gipuzkoa maila).
■ 17:30: Usurbil-Txikipolit Zarautz K.E. senior mutilak (2. Nazional maila).

Irailak 17, larunbata
Euskal Kopa
■ 19:30: Usurbil-Gran Camping Zarautz K.E.

Pala partida Aginagan

Irailak 16 ostirala, Aginagan
■ 19:30 Gipuzkoako Txapelketa, binaka gomaz, 2. Mailako partida.

Goardiako farmaziak

Osteguna	**15**	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte	
Ostirala	**16**	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Larunbata	**17**	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Igandea	**18**	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Astelehena	**19**	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Asteartea	**20**	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Asteazkena	**21**	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Osteguna	**22**	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Ostirala	**23**	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Larunbata	**24**	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Igandea	**25**	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda iraila

16 ostirala

- **Santueneko jaiak**. Egitaraua 9. orrialdean.
- **Sagarrondotik Sagardora: "Sagarraren heldutasun-analisiak", Aitor Etxeandiaren eskutik.** 15:30-18:30 Potxoenean.
- **Donostia Festibala Zubietako hipodromoan.** Informazioa: donostiafestibala.com.

17 larunbata

- **Santueneko jaiak**. Egitaraua 9. orrialdean.
- **Donostia Festibala Zubietako hipodromoan.** Informazioa: donostiafestibala.com.

18 igandea

- **Santueneko jaiak**. Egitaraua 9. orrialdean.
- **Usurbil 1936 elkarteak antolaturiko ekitaldia.** 12:00etan Irubiden.

Donostia Festibala, Zubietako hipodromoan

Bueltan dator Euskal Herriko nahiz kanpoko talde ezagunak zaldien lasterketa tokian biltzen dituzten bi kontzertu gauak.

Irailak 16, ostirala

Keler agertokian:
18:35 Andrea Santiago, 20:15 Nogen, 22:30 Lola Indigo, 01:35 Nil Moliner.

"Bigarrena" agertokian:
18:00 Julen, 19:25 Bengo,
21:25 Marlon, 00:15 Arnau Griso.

Irailak 17, larunbata

Keler agertokian:
18:40 Idoia, 20:30 Marlena,

Larunbatean Bulego taldea arituko da.

23:00 Melendi, 02:40 Stay Homas.

"Bigarrena" agertokian:
18:00 Intza, 19:30 Veintiuno,
21:40 Sofia Ellar, 01:30 Bulego.

■ Sarrerak: 2 eguneko bonua 45 eurotan, egunero sarrera 30 eurotan.
■ donostiafestibala.com

Endika Abril txapelketako partida

Iraila hasieratik abian den txapelketan 9 talde ari dira lehian hiru multzotan. B multzoko neurketak Zubietan jokatzen ari dira. Igande honetan, etxekoen txanda; zubietarrak Endaiarrak taldekoekin lehiatuko dira, goizeko 10:30ean hasita, errebote plazan.

Oroimen gune berria inauguratuko dute Irubiden

1936ko gerran exekuzio gune izandakoa oroimenerako eremuan bilakatuko du Usurbil 1936 elkarteak igande honetarako, eguerdiko 12:00etan Irubiden deitu duen ekitaldiaren bidez. "Aparkatzeko toki gutxi dagoenez, ahalik eta kotxe gutxienetan joatea eskatzen dizuegu".

Datozenak

Txirikordaren bueltako jardunaldiak

Irailak 23 ostirala, Potxoenean

■ 18:30 Mahai ingurua: belaunaldi arteko esperientziak (Matia boluntariotza, Hernani auzo-zaintza).
■ Zehaztasunak: "Txirikorda 2023an bertan martxan jartzea espero dugu. Elkarbizitza eta izaera komunitario berezia izango du, eta, horregatik, aurre-lanketa bat egitea ezinbestekoa iruditzen zaigu".

Irailak 24 larunbata, Potxoenean

■ 10:00-13:00 Hitzaldiak. Etxebizitza komunitario eta kooperatiboen esperientziak: Txirikorda proiektuaren aurkezpena; Errenteria, gazteentzako etxebizitza komunitarioak; Entrepatios (Madril).
■ Zehaztasunak: "Txirikorda belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa gauzatzetik gero eta gertuago dago: 2023an bertan martxan jartzea espero dugu. Elkarbizitza eta izaera komunitario berezia izango du, eta, horregatik, aurre-lanketa bat egitea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Besteak beste, Txirikorda jardunaldiak egingo ditugu, etxebizitza komunitarioen eta belaunaldi arteko esperientzien ingurukoak".
Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Kima
MASAJE LEKUA
·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

PLIS PLAS TXALO ETA JOLAS

"ZIRKOBIRA"

Ireki begiak!! Ongi etorriak zirko-mundu ikusgarrira!!
Hankapaluak, ekilibristak, pailazoak,
akrobatak... utzi pasatzen eta disfrutatu haiekin
batera egiten dituzten ikuskizunez.

Irailak 23, ostirala

18:30 Kalejira Artzabaldik abiatuta eta
amaiera Mikel Laboa plazan
(Eguraldi txarra bada frontoian)

noaua

urbil Kids zone

DOAKO haurtzaindegi zerbitzua Urbilen.

Informazio guztia: www.urbil.es.